

Euskal AEko ondasunen esportazioek % 21,8 egin dute gora 2022ko irailean

2022ko lehen bederatzi hiletan metatutako kanpo-saldoak 2.366 milioi euroko superabita izan du

Euskal AEko ondasunen **esportazioek** (2.850 milioi euro), 2022ko irailean, aurreko urteko hil beraren aldean, % 21,8ko igoera izan dute, produktu energetikoen % 49,0ko eta ez-energetikoen % 19,8ko igoeraren ondorioz, Eustaten datuen arabera.

Inportazioen kasuan (2.510 milioi), % 33,2ko igoera izan da. Inportazio ez-energetikoen % 26,2 egin dute gora, eta energetikoen, % 56,8.

2022ko irailean, merkataritza-saldo positiboa izan da (340,4 milioi) eta estaldura-tasa % 113,6koa.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Iraila 2022

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Iraila			Iraila		
	2021	2022	Gehikuntza (%)	2021	2022	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETEA, GUZTIRA	2.341.029	2.850.349	21,8	1.883.994	2.509.920	33,2
ENERGIAZKO GAIAK	157.398	234.549	49,0	430.394	674.842	56,8
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.183.631	2.615.800	19,8	1.453.600	1.835.078	26,2
URTEKO METATUA	18.691.352	24.239.354	29,7	14.905.721	21.872.890	46,7
ENERGIAZKO GAIAK	982.053	2.128.376	116,7	3.049.103	6.334.918	107,8
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	17.709.299	22.110.978	24,9	11.856.618	15.537.972	31,0
ARABA / ÁLAVA						
HILABETEA, GUZTIRA	637.458	907.759	42,4	342.312	504.200	47,3
URTEKO METATUA	5.307.284	6.875.035	29,5	3.228.719	4.218.501	30,7
BIZKAIA						
HILABETEA, GUZTIRA	975.258	1.131.697	16,0	1.095.764	1.496.891	36,6
URTEKO METATUA	7.550.416	10.020.832	32,7	8.330.450	13.353.890	60,3
GIPUZKOA						
HILABETEA, GUZTIRA	728.314	810.893	11,3	445.918	508.830	14,1
URTEKO METATUA	5.833.652	7.343.487	25,9	3.346.552	4.300.498	28,5

Data 2022ko Azaroaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko hiru lurralde historikoek hazkuntza-tasa positiboak izan dituzte, eta igoera-ehunekoa % 42,4koa izan da Araban, % 16,0koa Bizkaian eta % 11,3koa Gipuzkoan. Bizkaiko esportazio ez-energetikoek % 10,1 egin dute gora; Arabakoek, % 42,5, eta Gipuzkoakoek, % 10,9. Esportazio energetikoek, Bizkaiaren kasuan, % 47,2 egin dute gora.

Araban, esportazioak honako hauetan kontzentratu dira hilabete honetan: “*Garraio-materiala*” (guztizkoaren % 62), % 60,5eko igoerarekin (562,9 milioi esportatu, guztira); “*Metalak eta haren manufakturak*” (urte arteko % 36,5eko igoera), eta “*Plastikoak, kautxua eta haien manufakturak*” (% 7,8). Hiru “arantzel-sekzio” horiek hil honetan ere pisu espezifiko handienekoak izan dira.

Gipuzkoan, gora egin dute bi arantzel-partida nagusien salmentek: “*Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak*” (% 4,1), “*Metalak eta haien manufakturak*” (% 24,2). Baina rankineko hirugarrenak, “*Garraio-materiala*”k, atzera egin du % 7,2.

Bizkaiaren kasuan, berriz, hazi egin dira “*Garraio-materiala*” partidaren esportazioak (% 35,8), bai eta “*Produktu mineralak eta energetikoak*” (% 46,1) partidenak ere. “*Metalak eta haien manufakturak*” eta “*Materiala, makinak eta aparatu elektrikoak*” partidek, berriz, behera egin dute (–% 5,4 eta –% 13,3, hurrenez hurren).

Jatorri- eta helmuga-herrialdeak, 2022ko iraila

2022ko irailean, bost herrialdek (Alemania, Frantzia, Estatu Batuak, Herbehereak eta Erresuma Batua) eratu dute Euskal Aeren bezero nagusien taldea; esportatutako guztizkoaren % 50,8 hartzen dute (1.448,1 milioi). Haietako hiru EB27koak dira; entitate horri % 64,5 dagokio.

Alemaniarra eginiko esportazioek % 40,0 egin dute gora; Frantziarra eginikoek, % 2,3; Estatu Batuetara eginikoek, % 47,4; Herbehereetara eginikoek, % 17,7, eta Erresuma Batura eginikoek, % 11,6. Italiara, Portugalera eta Belgikara eginikoak ere areagotu dira (% 13,1, % 20,4 eta % 7,4). Europatik kanpora, Marokokoak, Mexikokoak, Brasilekoak eta Txinakoak handitu dira (% 137,6, % 74,7, % 36,0 eta % 4,7) eta behera egin dute, nabarmen, Errusiakoek (–% 75,4).

Gure inportazioen % 46,0 EB27tik etorri dira. Europako herrialde garrantzitsuenen artean, Polonia nabarmentzen da gehien, % 73,1eko urte arteko hazkuntza izan baitu, eta, ondoren, Alemania (% 31,4), Irlanda (% 26,4), Herbehereak (% 16,7), Portugal (% 16,0) eta Belgika (% 16,0). Erresuma Batuan, % 11,9ko atzerapena egon da. Munduko gainerako herrialdeak aztertuta ikusten da areagotu egin direla honako herrialde hauetan jatorria duten inportazioak: Brasil (% 388,2 eta 244 milioi inportatu), Txina (% 40,4 eta 222,5 milioi inportatu) eta Irak (174,4 milioi). Aldiz, Estatu Batuetakoak eta Mexikokoak jaitsi egin dira (–% 21,7 eta 102,6 milioi eta –% 20,0 eta 51,9 milioi, hurrenez hurren). Errusiaren kasuan, % 96ko atzerakada egon da; 2021eko irailean 121,4 milioi izatetik 2022ko hil berean 4,9 milioi izatera igaro da; hilabete honetan inportatutako salgai guztiak “ez-energetikoak” izan dira.

Gure inportazio energetikoak honela banatu dira: 298 milioi Asiakoak (% 44,1); 248 milioi Amerikakoak (% 36,7) eta, haietatik, 176,5 milioi Brasilekoak; 88 milioi Afrikakoak (% 13,1) eta 41 milioi Europakoak (% 6,1).

Merkaturatutako produktuak, 2022ko iraila

Xehetasunak ikusteko, 2022ko irailean ikusten da hamar **arantzel-partida** nagusiek esportazioen % 44,7 kontzentratu dutela; baterako balioa 1.274,6 milioi eurokoa izan da.

Nabarmentzekoak dira, talde horren barruan, “*Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak*” partidaren igoera (% 139,4 eta aurreko urteko hil berean baino 30 milioi gehiago); arantzel-partida horrek, 2022ko irailera arte (354,6 milioi), aurreko bi urteetan esportatutako kopuru bera (367,7 milioi) biltzen du, ia-ia. Espektra 25 partida nabarmenetara zabaltzen badugu,

nabarmentzekoa da “Arrain izoztua xerratu gabe” partida (% 189,6), 9 milioi esportatutik 26 milioira egin baitu. Igoera handia izan dute, era berean, honako produktu hauek, besteak beste: “Salgaiak garraiatzeko ibilgailuak” (% 126,1 eta 178,7 milioi esportatu), “Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak” (% 124,8 eta 49,4 milioi) eta “Biodiesel eta haren nahasteak” (% 124,5 eta 26,8 milioi esportatu).

Esanguratsuak dira, era berean, besteak beste, honako partida hauetako hazkuntza-tasak: “Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak” (% 61,9 eta 36,9 milioi esportatu), “Petrolioaren olio finduak” (% 58,5 eta 79 milioi gehiago aurreko urteko hil berean baino), “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” (% 39,8 eta 304,2 milioi esportatu) eta “Automobilentzako zati eta osagarriak” (% 34,0 eta 215,5 milioi esportatu).

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Iraila 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.341.029	2.850.349	100,0	21,8
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	217.669	304.218	10,7	39,8
Automobilentzako zati eta osagarriak	160.884	215.534	7,6	34,0
Petrolioaren olio finduak	135.002	213.970	7,5	58,5
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	79.060	178.734	6,3	126,1
Kautxuzko pneumatiko berriak	94.986	110.305	3,9	16,1
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	59.257	73.508	2,6	24,0
Aduana-tarifen berariaz jasota ez dauden merkantziak	21.533	51.554	1,8	139,4
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	21.990	49.436	1,7	124,8
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	50.891	40.368	1,4	-20,7
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	22.821	36.939	1,3	61,9
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	33.511	36.935	1,3	10,2
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	27.288	33.433	1,2	22,5
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	18.490	28.909	1,0	56,3
Xaffen bidez eraikuntzak, barrak, profilak, tutuak eta fundicion-etako, burdinako edo altzairuko antzeko	16.230	27.961	1,0	72,3
Biodiesel eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisuan % 70etik beherako edukiarekin	11.960	26.847	0,9	124,5
Arrain izoztua xerratu gabe	9.002	26.073	0,9	189,6
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	16.617	25.268	0,9	52,1
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	9.560	25.075	0,9	162,3
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	35.416	22.367	0,8	-36,8
Bizikletak eta gainerako motorrik gabeko belozipedoa	9.883	21.062	0,7	113,1
Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	23.873	20.800	0,7	-12,9
Ardoa, mahats freskoarena	20.090	20.518	0,7	2,1
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	38.736	20.461	0,7	-47,2
Enbolo-motorra duten motorrak, ziklomotorrak, bizikleta elektrikoak eta sidekarrak	9.717	19.734	0,7	103,1
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, engrageak....	15.799	19.559	0,7	23,8

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Azaroaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioen kasuan, arantzel-partidetan, garrantzitsuenak, “*Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak*” (guztizkoaren % 23,7) partidak, % 160,1eko hazkuntza izan du, 2021eko hil berean baino 365,5 milioi gehiago, 593,8 milioiko guztizko erosketetan, honela banatuta: 176,5 milioi Brasilekoak, 174,4 milioi Irakekoak, 117,7 milioi Saudi Arabiakoak, 53,8 milioi Libiakoak, 47,7 milioi Mexikokoak eta 23,6 milioi Estatu Batuetakoak.

Joera positibo hori arantzel-partida nagusi gehienek izan dute, eta, haien artean, honako hauen igoera nabarmentzen da: “*Enbolo-, diesel- edo erdi-diesel-motorrak*” (% 145,1 eta 44,8 milioi inportatu), “*Landu gabeko aluminioa*” (% 138,0 eta 40 milioi), “*Metagailu elektrikoak eta haien zatiak*” (% 127,2 eta 31 milioi) eta “*Soja-babak, baita hautsiak ere*” (% 110,8 eta 95 milioi).

Atzera egin dute, nabarmen, honako hauen inportazioek: “*Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak*” (–% 55,2 eta 42 milioi gutxiago aurreko urteko hil berean baino), “*Petrolioaren olio finduak*” (–% 71,3 eta 83 milioi gutxiago) eta “*Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko txatarra*” (–% 32,3 eta 17 milioi gutxiago).

ARABA. Esportazioak 2022ko irailean

Arabian, esportazioek % 42,4 egin dute gora, neurri handi batean hil honetan honako partida hauek izan duten igoera handiagatik: “*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*” (% 40,7 eta 302,3 milioi esportatu, guztira, aurreko urtean baino 87,5 milioi gehiago), “*Salgaiak garraiatzeko ibilgailuak*” (% 129,6 eta 178,5 milioi esportatu) eta “*Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak*” (% 524,0 eta 41,5 milioi esportatu, aurreko urteko hil berean baino 34,8 milioi gehiago). Esportatzeko ahalegin horretan, honako hauek ere parte hartu dute: “*Ibilgailuen zati eta osagarriak*” (% 24,1 eta 58,7 milioi) eta “*Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satelite eta ibilgailu espazialen zatiak*” (9,5 milioi esportatu).

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Iraila 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	637.458	907.759	100,0	42,4
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	214.814	302.342	33,3	40,7
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	77.736	178.499	19,7	129,6
Automobilentzako zati eta osagarriak	47.295	58.691	6,5	24,1
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	6.644	41.461	4,6	524,0
Kautxuzko pneumatiko berriak	34.303	39.209	4,3	14,3
Ardoa, mahats freskoarena	18.015	18.058	2,0	0,2
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	19.753	16.776	1,8	-15,1
Metal aruntezko ontzietarako tapoiak, tapak eta beste osagari batzuk	7.895	11.506	1,3	45,7
Motorra duten edo ez duten aireontzien zatiak, tripulatuak izan edo ez, eta satelite eta ibilgailu espazialen zatiak	0	9.544	1,1	-
Altzairu herdoilgaitza, lingotetan edo bestelako forma primarioekin	92	8.892	1,0	9.521,8

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Azaroaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

BIZKAIA. Esportazioak 2022ko irailean

Bizkaiko lurralde historikotik eginiko esportazioek % 16,0 egin dute gora, aurreko urtearekin alderatuta. Hamar partida nagusietatik, kopuru osoaren % 49 baitira, esportatzeko ahaleginean honako hauek egin dute ekarpenik handiena: “*Petrolioaren olio finduak*” (% 56,3ko hazkuntza eta 209,9 milioi esportatu), “*Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak*” (% 149,1 eta 48,5 milioi esportatu), “*Ibilgailuen zati eta osagarriak*” (% 46,1 eta 86,4 milioi) eta “*Kautxuzko pneumatiko berriak*” (% 17,1 eta 70,6 milioi).

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Iraila 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	975.258	1.131.697	100,0	16,0
Petrolioaren olio finduak	134.322	209.949	18,6	56,3
Automobilentzako zati eta osagarriak	59.121	86.357	7,6	46,1
Kautxuzko pneumatiko berriak	60.284	70.578	6,2	17,1
Aduana-tarifan berariaz jasota ez dauden merkantziak	19.477	48.517	4,3	149,1
Biodiesela eta bere nahasketak, petrolio edo mineral bituminoso oliorik gabe edo pisuan % 70etik beherako edukiarekin	11.960	26.847	2,4	124,5
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	16.478	25.509	2,3	54,8
Arrain izotua xerratu gabe	7.997	24.628	2,2	208,0
Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	12.627	21.683	1,9	71,7
Transformadore elektrikoak, bihurtailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	32.432	21.050	1,9	-35,1
Turboerreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	16.788	19.079	1,7	13,6

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Azaroaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

GIPUZKOA. Esportazioak 2022ko irailean

Gipuzkoako esportazioek % 11,3 egin dute gora, eta, haien partida nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira: “*Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropultsatuetarako*”, guztira 17,5 milioi esportatu; kopuru horretatik, 8,2 milioi Norvegiari, 4,9 milioi Israeli eta 4,4 milioi Belgikari. Bestalde, “*Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak*” (% 21,7 eta 68,4 milioi), “*Ibilgailuen zati eta osagarriak*” (% 29,4 eta 70,5 milioi) eta “*Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiatzaileak, etab.*” (% 149,3 eta 19,6 milioi esportatu) ere nabarmentzen dira.

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Iraila 2022

	2021	2022	2022 (%)	2022/2021 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	728.314	810.893	100,0	11,3
Automobilentzako zati eta osagarriak	54.468	70.485	8,7	29,4
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	56.224	68.423	8,4	21,7
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	33.226	28.515	3,5	-14,2
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	7.850	19.570	2,4	149,3
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	22.315	19.338	2,4	-13,3
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturrak	14.341	18.390	2,3	28,2
Metal arruntezko giltzarapo, sarraila, morroilo eta giltzak	15.748	18.006	2,2	14,3
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	387	17.532	2,2	4.427,4
Izokatu eta estali gabeko papera eta kartoia, helburu grafikoen, bobinetan edo zulatzeko orri eta zintetan	13.420	16.115	2,0	20,1
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	6.274	15.047	1,9	139,8

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Azaroaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

2022KO METATUA (URTARRILA-IRAILA): kanpoko saldoak 2.366 milioi euroko superabita izan du, eta estaldura-tasa % 110,8koa da

2022ko lehen bederatzi hilotan, Euskal AEko **esportazioek** % 29,7ko urte arteko igoera izan dute, aurreko urteko aldi beraren aldean; alegia, 5.548 milioi euro gehiago. Aldi horretan, zenbateko esportatzailea 24.239 milioikoa izan da, eta kopuru horri Bizkaiak egin dio ekarpenik handiena, 10.021 milioikoa (guztizkoaren % 41), gero Gipuzkoak (7.343 milioi) eta, ondoren, Arabak (6.875 milioi).

Bizkaiko esportazioek, gainera, urte arteko hazkuntza handiena izan dute (% 32,7), 2021ean baino 2.470 milioi gehiago. Araban, hazkuntza % 29,5koa izan da (1.568 milioi gehiago) eta, Gipuzkoan, % 25,9koa (1.510 milioi gehiago).

Esportatutako produktu mota kontuan hartuta, egiaztatu da esportazioek hazkuntzak izan dituztela, bai "Produktu energetikoenek" (1.146,3 milioi gehiago), bai "Produktu ez-energetikoenek" (4.401,7 milioi gehiago 2021eko aldi bereko metatua baino).

Gehien saldu diren hamar produktuek (arantzel-partidak) guztizkoaren % 41,2 kontzentratzen dute, 9.984,8 milioiko zenbatekoarekin.

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Iraila 2022

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	24.239.354
1	2710	Petrolioaren olio finduak	1.960.860
2	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	1.846.974
3	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	1.604.403
4	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	1.317.176
5	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	938.462
6	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	656.270
7	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	475.722
8	8481	Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	440.178
9	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	390.151
10	9990	Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	354.565
11	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	326.747
12	8603	Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuak	323.449
13	7222	Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	286.208
14	7228	Gainerako altzairu aleatuen barrak eta profilak eta zulatzeko barra hutsak	283.544
15	7306	Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	254.135
16	1518	Erabilera tekniko industrialetarako koipeak eta olioak (animalia- edo landare-)	218.765
17	7308	Xafien bidez eraikitutako, barrak, profilak, tutuak eta fundicio-eta, burdinako edo altzairuko antzeko	207.107
18	8483	Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak....	199.454
19	7601	Landu gabeko aluminioa	195.695
20	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	192.760
21	8504	Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	189.990
22	8544	Hariak, isolatutako eroale elektrikoak kableak eta zuntz optikoko kableak	189.701
23	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	187.773
24	8301	Metal arruntzeko giltzarriak, sarraila, morroilo eta giltzak	175.619
25	4804	Kraft papera eta kartoia, iztatu edo estali gabeko, bobina edo orritan	172.144

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Azaroaren 17a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

“Petrolioaren olio finduak” Euskal AEko esportazio-bolumen handiena duen partida da (1.960,9 milioi esportatu eta % 134,5eko hazkuntza-tasa).

Gehien hazi diren produktuen artean honako hauek nabarmendu behar dira: “Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuak” (% 841,0 eta 323,4 milioi euro esportatu) eta “Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak” (% 117,1 eta 475,7 milioi). Lehen hamarren rankina eratzen duten gainerako produktuen kasuan, nabarmenezko moduko bilakaerak “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” partidaren % 17,1 (1.847 milioi esportatu) eta “Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak” partidaren % 118,0 (354,6 milioi) bitartekoak izan dira.

Kontuan hartzeko moduko beste hazkuntza batzuk honako hauek dira: “Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak”, “Salgaiak garraiatzeko automobilak”, “Ibilgailuen zati eta osagarriak” eta “Kautxuzko pneumatiko berriak”; % 47,6ko, % 28,5eko, % 22,3ko eta % 19,2ko aldakuntza positiboak dituzte, hurrenez hurren.

Alemania izan da esportazioen helmugako herrialdeen sailkapeneko buru (3.769 milioi), eta, ondoren, oso gertutik, Frantzia (3.727 milioi) eta, urrunago, Herbehereak (1.647 milioi), Estatu Batuak (1.557 milioi) eta Erresuma Batua (1.496 milioi); hala, bost herrialdeen artean, esportazioen % 50,3 hartzen da. Herrialde horiei dagokienez, estaldura-tasa, Alemaniaren kasuan, % 137,3koa izan da. Gainerakoen kasuan, tasa horiek % 200era iristen dira edo gaintu egiten dute kopuru hori, Estatu Batuen kasuan izan ezik (% 94,8), ez baita iristen esportazio eta inportazioen arteko orekaren tartera, eta, hala, herrialde horri dagokionez, merkataritza-balantza defizitariora izan da.


Euskal AErako **inportazioen** metatua 21.873 milioi euro ingurukoa da. Zifra hori urte artean erkatuz gero, 2021eko aldi berean erregistratutakoa baino 6.967 milioi handiagoa dela ikusten dugu. % 46,7ko gorakada hori izan da, zati handi batean, Bizkaiko lurraldean (13.353,9 milioiko balioa duten inportazioak ditu) % 60,3ko gorakada egon delako, alegia, aurreko urteko aldi berean baino 5.023 milioi gehiago. Araban ere inportazioek gora egin dute, % 30,7, 990 milioi euro gehiago, eta, Gipuzkoan, % 28,5eko igoera izan dute eta 954 milioi euro gehiago; inportatutakoaren balioa 4.218,5 eta 4.300,5 milioi euro izan da, hurrenez hurren, bi lurralde horietan.

“Produktu energetikoen” inportazioak % 107,8 egin du gora, aurreko urteko aldi beraren aldean, eta “Produktu ez-energetikoenak”, % 31,0.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2022ko lehen bederatzi hiletan, 2.366,5 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta aldeko estaldura-tasari eustea dakar, % 110,8koa.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera

Milioi Euro



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62